

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

177/2020 Foru Agindua, irailaren 29koa, Arabako naturagune babestuetan ibilgailuak aparkatzeko arauak eta mugak ezartzekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko

COVID-19ak eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurriei buruzko Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduak eranskinean 3.21 apartatua xedatutakoaren arabera, normaltasun berrirako trantsiziorako planeko 3 fasea gaingitu eta gero, "Naturagune babestuen arloko eskumena duen agintaritzak neurri murriztaileak hartu ahal izango ditu naturagune babestuetara iristeko, jende-pilaketak sortzeko arriskua egon daitekeela uste denean".

Bestalde, honako hau ezartzen du apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak 25.1 artikuluan: "Foru-organo eskudunek kudeatu beharko dituzte natura-gune babestuak". Azkenik, honako hauek ahalmena ematen diote organo kudeatzaileari jolas jarduerak eta erabilerak arautzeko, berariaz aipatzen dituztelarik aparkatzeko eta kanpatzeko mugak: natura baliabideak antolatzeko planek (NBAP), erabilera eta kudeaketa arautzeko planek (EKAP) eta Natura 2000 eremuak kudeatzeko agiriek, zeinak beren araudien bitartez onetsi baitzituzten Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak.

Normaltasun berri honek aurrera egin duen heinean, ikusi da hazi egin dela Arabako Lurralde Historikoaren naturagune babestuetara autoz eta, bereziki, autokarabanaz joaten direnen kopurua, eta gehiegizko jende pilaketak ebakuazio arazoak sor ditzake larrialdiren bat gertatuz gero, hala nola baso suteak edo bestelakoak.

Horregatik, Natura Ondarearen Zerbitzuak, Arabako naturagune babestuen organo kudeatzailea denez gero, beharrezkotzat jo du naturagune babestuetako aparkalekuetarako sarbidea eta edukiera arautzea eta mugatzea, behar bezala erabiliko direla bermatzeko eta jende pilaketak saihesteko (hain zuzen, jende pilaketak aipatzen ditu COVID-19ak eragindako pandemia prebentzeko "normaltasun berrira" egokitzeko araudiak).

Xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik izapidetu da proposamena.

Horregatik guztiagatik, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako argibideak aintzat hartuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Arautzea eta mugatzea ibilgailu motordunen sarrera Foru Agindu honetako Eranskinean jasotako naturagune babestuetako aparkalekuetara, jende pilaketarik egon ez dadin, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren aurreko prebentzio neurri gisa, behin normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3 fasea igarota, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduan ezarritakoa oinarritat hartuta.

Bigarrena: Mugatzea Arabako Lurralde Historikoaren naturagune babestuetako aparkalekuetako ibilgailu kopurua, foru agindu honen eranskinean jasotakoa oinarri hartuta.

Hirugarrena: Aparkatzeko alde zurreko baimena eskatu beharra ezartzea, eta gaua igarotzeko mugak jartzea autokarabana gisa katalogatuta dauden ibilgailuei eta kanperizatutako bestelako ibilgailuei. Halakotzat joko dira gaua emateko prestatuta dauden eta neurri hauek gainditzen dituzten ibilgailuak: 5,0 metro luze, 2,0 metro zabal eta 2,05 metro garai.

Laugarrena: Naturagune babestuetan, baimendutako lekuetatik kanpo aparkatzea debekatzea.

Bosgarrena: Foru Agindu honetan eta naturagune babestu bakoitzaren berariazko araudian ezarritako arauak eta mugak betearazteko ahalmena ematea parke naturaletako Zaintza Zerbitzuari, Basozaintzari, Miñoiei, Ertzaintzari eta berariaz kontratatutako kidego laguntzaileetako kideei. Arau edo muga horien urratzeak Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen, abenduaren 13ko, 42/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

Seigarrena: Foru Agindu hau bere argitalpenerako hurrengo egunean indarrean egongo da eta indarreko egongo da osasun krisia behin betiko amaitzen den arte.

Zazpigarrena: Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020 uztailaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza diputatua
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNÁIN ALZOLA

I. ERANSKINA

ARABAKO NATURAGUNE BABESTUETAKO APARKALEKUETAN EZARRITAKO ARAUAK ETA MUGAK

1. Ibilgailuentzako mugak aparkalekuetan.

Ibilgailu motordunentzako toki muga hauek ezartzen dira Arabako naturagune babestu hauetako aparkalekuetan:

– PARKE NATURALAK:

VALDEREJOKO PN (Lalastra)	65 auto	20 autokarabana
GORBEIAKO PN (Sarria)	148 auto	22 autokarabana
IZKIKO PN (Korres)	46 auto	10 autokarabana
AIZKORRI-ARATZEKO PN (Laleze)	35 auto	8 autokarabana

2. Aparkatzeko mugak autokarabanentzat.

– Autokarabanak eta antzeko ibilgailuak aparkatu ahal izango dira horretarako prestatutako toki eta plazetan bakarrik.

– Parke naturaletan autokarabana aparkatzeko, alde zurretik baimena eskatu beharko da aldundiaren web orriaren bitartez.

– Parke natural bakoitzean gehienez ere bi gau eman ahal izango dira.